# HITZARMENA EUSKARABIDEA – EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEAREN ARTEAN 2022KO NAFARROAKO BERTSOLARITZAREN IKERKETA GARATZEKO

# CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA – INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA PARA UN PROYECTO DE INVESTIGACIÓN DEL BERTSOLARISMO EN NAVARRA EN EL AÑO 2022

## A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen arteko oinarriak ezartzea *bertsolaritzaren ahozko ondarearen ikerketa* egitasmoa Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzeko.

Hitzarmen honen xedea ez da Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen ekimen osoa finantzatzea, eta ez dira inola ere finantzatuko Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen beste jarduera batzuk. Nafarroan aipatu ekimena gauzatzeko beharrezkoak diren lanak finantzatuko dira.

## A) OBJETO:

El presente Convenio entre Euskarabidea– Instituto Navarro del Euskera y Nafarroako Bertsozaleen Elkartea tiene por objeto posibilitar en la Comunidad Foral de Navarra un proyecto de *investigación de la tradición oral en el bertsolarismo.*

El presente convenio no está destinado a financiar la totalidad de la iniciativa de Nafarroako Bertsozaleen Elkartea y en ningún caso financia otro tipo de actividades de Nafarroako Bertsozaleen Elkartea; se financiarán los trabajos necesarios para realizar la iniciativa en Navarra.

## B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Bertsolaritzaren eta sortzaileek darabilten euskararen ikerketa sustatzea dutela helburu komuna eta elkarren beharra dutela *Nafarroako bertsolaritzaren ahozko ondarearen ikerketa* gauzatu ahal izateko.

2. Alde biek, Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duten lege esparrua, gaitasuna ematen diena bi aldeei hitzarmen hau sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

## B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que comparten el objetivo de promover la investigación del bertsolarismo y el lenguaje de los artistas y que se necesitan mutuamente para poder materializarlo a través del proyecto de la *investigación de la tradición oral del bertsolarismo en Navarra.*

2. Que ambas partes, Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera y Asociación Nafarroako Bertsozaleen Elkartea, reconocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que sustenta y posibilita la capacidad de las partes para la firma de este Convenio, y para el desarrollo de cuantas iniciativas lo complementen.

## C) INDARREKO ARAUDIA

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1.2 artikuluan esaten da zein diren foru lege horren ezinbesteko helburuak: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz, eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraikiz, hori guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

## C) NORMATIVA APLICABLE

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, establece en su artículo 1.2 los objetivos esenciales de la misma, proteger el derecho de la ciudadanía a conocerlo y usarlo y concretar los medios para hacerlo posible, observar su recuperación y desarrollo, indicando medidas para fomentar su uso y garantizar la enseñanza y uso del euskera, siguiendo los criterios de voluntariedad, gradualidad y respeto, todo ello de acuerdo a la realidad sociolingüística del euskera en Navarra.

3. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.

4. 2019-2023 legealdiko Nafarroako Gobernurako Programa Akordioak honakoa aurreikusten du: Erakunde publikoekin eginiko lankidetza-hitzarmenei jarraitutasuna eman, edo, dagokion kasuetan, arlo publikoarekiko modu subsidiarioan, euskararen arloan erantzukizuna duten gizarte-entitateekin eginikoei.

5. 2022ko aurrekontu orokorretan, izen hau duen diru-saila aurreikusten da, 40.000 euroko funtsa duena: "(E) Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekiko hitzarmena, bertsolaritzaren ahozko tradizioa ikertzeko/(E) Convenio con Nafarroako Bertsozaleen Elkartea para la investigación de la tradición oral en el bertsolarismo", eta honako xede hau duena: hitzarmen bat sinatzea *Nafarroako bertsolaritzaren ahozko ondarearen ikerketaren* egitasmoa gauzatzeko. Dokumentu honek xede hori betetzen du.

**D) HITZARMENAREN IRAUPENA.**
Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2022ko azaroaren 10ean amaituko da. Diruz lagungarriak diren gastuak 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko azaroaren 10a bitarte sortutakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

**E) AURREKONTUA**
2022rako aurrekontua 40.000 eurokoa (BEZ barne) izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2022ko Aurrekontu Orokorren "(E) Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekiko hitzarmena, bertsolaritzaren ahozko tradizioa ikertzeko/(E) Convenio con Nafarroako Bertsozaleen Elkartea para la investigación de la tradición oral en el bertsolarismo" izeneko B30002 B3200 4819 334111 kontu-sailaren kargura.

**F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK**
Pertsonal gastuak eta gastu zuzenak.

1. PERTSONAL GASTUAK
1.1. Ikerkuntza arduradunaren dedikazioaren % 25: 7.800 €
- *Ikerketa lanaren koordinazioa: 3.000 €*

Ikerketa gaia identifikatzeko eta aukeratzeko bidea gauzatu eta kontratua bideratu. Horrez gain, egin behar diren harremanetan ikerlaria lagundu eta ikerketa prozeduren inguruko aholkularitza eskainiko dio Nafarroako Bertsozaleen Elkarteko ordezkariak.

3. El Decreto Foral 303/2019, de 6 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, asigna al Organismo, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.

4. El Acuerdo Programático para el Gobierno de Navarra de la legislatura 2019-2023 destaca la necesidad de dar continuidad a los convenios de colaboración con instituciones públicas y/o en su caso, de manera subsidiaria a lo público con aquellas entidades sociales con responsabilidad en el euskera.

5. En los Presupuestos Generales de Navarra de 2022 se contempla la partida nominativa "(E) Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekiko hitzarmena, bertsolaritzaren ahozko tradizioa ikertzeko/(E) Convenio con Nafarroako Bertsozaleen Elkartea para la investigación de la tradición oral en el bertsolarismo", con un saldo de 40.000 euros, para firmar un convenio con el fin de desarrollar una *investigación sobre la tradición oral del bertsolarismo en Navarra.* El presente documento da cumplimiento a dicho objetivo.

**D) PLAZO DE DURACIÓN DEL CONVENIO.**
La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 10 noviembre de 2022. Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero de 2022 y el 10 de noviembre de 2022.

**E) PRESUPUESTO**
El presupuesto para el año 2022 será de 40.000 euros (IVA incluido), con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334111 denominada "(E) Nafarroako Bertsozaleen Elkartearekiko hitzarmena, bertsolaritzaren ahozko tradizioa ikertzeko/(E) Convenio con Nafarroako Bertsozaleen Elkartea para la investigación de la tradición oral en el bertsolarismo" de los Presupuestos Generales de Navarra de 2022.

**F) ACTIVIDADES A SUBVENCIONAR**

Gastos de personal y gastos directos.

1. GASTOS PERSONAL
1.1. 25 % de la dedicación del responsable de la investigación: 7.800 €
- *Coordinación del trabajo de investigación: 3.000 €*

Identificación del tema a investigar y cooordinación de la contratación del/a investigador/a. Acompañamiento y asesoría del/a investigador/a por parte del representante de Nafarroako Bertsozaleen Elkartea. Interlocución con diferentes agentes involucrados.

- *Biografia atala eguneratzea, ikerketaren atal gisara; 4.800 €*

Bertsolaritzan ari diren pertsona eragile ezberdinen biografia fitxak bertsolaritzaren ikerketarako oinarri dokumentalaren ezinbesteko parte dira. Plazan gehien dabiltzan eta txapelketetan parte hartzen duten bertsolarien, epaileen, gai-jartzaileen eta antolatzaileen biografiak idatzi edo/eta eguneratuko dira, eta bdb.bertsozale.eus atarian publikatu (urtean 40 inguru), pertsona horien formaziari, ibilbideari, palmaresari eta ekarpen artistikoari buruzko datuak eta informazioak jasoz.

1.2. Administrari arduradunaren dedikazioaren % 25: 7.200 €

- *Bertso ekitaldien informazioaren bilketa eta dokumentazioaren koordinazioa, ikerketaren parte gisara: 3.700 €*

Urtean zehar Nafarroan identifikatzen diren 200 ekitaldi inguruaren informazioa jasotzea eta dokumentatzea koordinatuko da, horien fitxak osatuz, eta tokiari, datari, parte hartzen duten bertsolariei, ekitaldi motari, eta antolatzaileari buruzko datuak jasoz, bertsolaritzaren ikerketarako oinarri dokumentalaren ezinbesteko parte gisara. Publiko diren ekitaldiak, gainera, bdb.bertsozale.eus ataleko agendan kokatuko dira, euren zabalkundea bultzatuz.

- *Ekitaldien grabazioen koordinazioa: 3.500 €*

Urteko Nafarroako bertso ekitaldien % 15-17a grabatuko da, dokumentaziorako oinarrizko lagin gisara; Nafarroan 30 grabazio inguru burutuko dira urtean zehar.

2. IKERKETA LANERAKO GASTUAK

2.1. Ikerketarako dokumentazio bilketa Xenpelar Dokumentazio Zentroa: 19.500 €

- *Bdb.bertsozale.eus sistemaren dokumentazio sistema garatzea (ikerketa atariaren prestaketak, mantentzea eta garatze-lanak): 4.800 €*

Ikerketa atariaren prestaketa, mantentzea eta garatze lanak (www.bdb.bertsozale.eus web atariaren prestatzea) Nafarroako datuak txertatzea eta datu guztiak alderatuko ditu Xenpelar Dokumentazio Zentroak.

- *Ikerketarako agenda zabaltzea: 1.590 €*

- *Redacción y actualización de biografías como parte de la investigación: 4.800 €*

Las fichas biográficas de diferentes personalidades dentro del bertsolarismo son parte indispensable de la base documental necesaria para la investigación de esta disciplina artística y cultural. Se redactarán, actualizarán y publicarán en la base de datos (bdb.bertsozale.eus) biografías de bertsolaris con presencia notoria en actuaciones, así como de jueces, presentadores/as y organizadores (40 al año), incluyendo datos de formación, trayectoria, palmarés, y aportación artística.

1.2. 25 % de la dedicación de responsable administración: 7.200 €

- *Coordinación de la recopilación y documentación de información de eventos de bertsolarismo para su investigación: 3.700 €*

Se coordinará la labor de recopilación y documentación de los alrededor de 200 eventos de bertsolarismo que se organizan anualmente en Navarra, como base documental para la posterior investigación de la disciplina, creando sus fichas correspondientes, y recogiendo datos de lugar, fecha, bertsolaris participantes, tipo de actuación y entidad organizadora. Se incorporarán a la sección de agenda de bdb.bertsozale.eus todos aquellos que sean públicos, impulsando así su difusión.

- *Coordinación de la grabación de eventos de bertsolarismo: 3.500 €*

Se documentará mediante grabación alrededor del 15-17 % de los eventos de bertsolarismo que se celebren durante el año en Navarra. En total, alrededor de 30 grabaciones anuales.

2. GASTOS LABOR INVESTIGACIÓN

2.1. Recopilación documental para la investigación: Xenpelar Dokumentazio Zentroa: 21.000 €

- *Desarrollo e implementación del sistema documental bdb.bertsozale.eus (preparación del portal de investigación, mantenimiento y desarrollo): 4.800 €*

Xenpelar Dokumentazio Zentroa se encarga de la preparación, mantenimiento y desarrollo del portal de investigación www.bdb.bertsozale.eus, además de la incorporación al mismo de todos los datos correspondientes a Navarra, así como el cotejo de los mismos.

- *Difusión de la agenda para la investigación 1.590 €*

Biltzen diren ekitaldi publikoen berri emango da Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bitartez. Komunikabideetara eta herritarrengana harpidetza sareak bideratuko dira aurrez antolatutako informazioa zuzenean helarazteko.

- *Bilketa eta dokumentazio irizpideen formazioa eta zuzenketa: 3.220 €*

Grabazioen baldintza teknikoak eta fitxak egoki jasotzeko irizpideak ezarriko ditu Xenpelar Dokumentazio Zentroak; horrez gain, bertsoak idatziz emateko transkripzioen gaineko ikastaroa eta zuzenketa lana egingo du.

Ikerketan ariko den teknikariari corpusaren inguruko laguntza eta aholkularitza bideratuko zaio Xenpelar Dokumentazio Zentroan.

- *Bat-bateko bertsoen transkripzioa eta zuzenketa, ikerketaren parte gisara: 4.800 €*

Bertso sorkuntza ahozkoa, kantatua eta bat-batekoa da, eta beraz, sortu bezain pronto desagertzen da. Zentzu horretan, bertsoen transkripzioa eta zuzenketa ezinbesteko baldintza da bertsolaritzaren ikerketan, iraungo duen idatzizko euskarri bat eskaintzen duelako, sorkuntza artistikoaren isla dena. Urtean zehar, gutxi-gorabehera, 12 bertso saiotako 18 bertsoaldi eta 80 bertso transkribatu eta zuzenduko dira.

- *Bestelako dokumentuen bilketa eta antolaketa (argazki, artxibo, kartel...): 2.390 €*

Argazki, artxibo, kartel eta bestelako dokumentuak Xenpelar Dokumentazio Zentroan bilduko dira propio prestaturiko gordailuan. Bertan biltzen denaren inbentarioa prestatuko da.

- *Ikerketarako urteko bildumaren prestaketa: 4.200 €*

Nafarroako datu guztiekin (ekitaldien kopurua eta zerrenda, grabazio kopurua eta zerrenda eta transkripzioekin zein bildutako bestelako materialaren zerrendarekin) bilduma prestatuko du Xenpelar Dokumentazio Zentroak.

2.2. Ikerketa txostenaren prestaketa eta erredakzioa: 4.000 €

Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak Nafarroako bertsolaritzarekin lotutako gai zehatz bat aztergai izango duen ikerketa lan bat eginen du. Ikerlariaren kontrataziora bideratuko da kopuru hori, hau da, ikerketa lana burutzeko: bildutako fondo dokumentalaren gaineko datu kuantitatibo eta kualitatiboen ondorioztatzea, landa lana, txostena idaztea eta abar.

A través de Xenpelar Dokumentazio Zentroa, se informará acerca de los eventos documentados. Se dispondrán redes de subscripción para difundir dicha información tanto a medios de comunicación como a la población en general.

- *Trabajos de formación y corrección de los criterios de recopilación: 3.220 €*

Xenpelar Dokumentazio Zentroa fijará los criterios técnicos de grabaciones y creación de fichas de documentación, y ofrecerá formación para la transcripción correcta de los bertsos. Además, desarrollará una labor de corrección de dichas tareas.

Por otra parte, ofrecerá asesoría en torno al corpus y a los recursos de documentación a la persona encargada del trabajo de investigación previsto en este convenio.

- *Transcripción y corrección de bertsos improvisados, como parte de la investigación: 4.800 €*

La creación de los bertsolaris es oral, cantada e improvisada, y desaparece tan pronto como se crea. Por lo tanto, la transcripción y posterior corrección de los bertsos es tarea indispensable para la investigación de la disciplina, pues facilita un soporte escrito y duradero de la creación artística. A lo largo del año, se transcribirán, corregirán y documentarán alrededor de 80 bertsos de 18 actuaciones de 12 eventos.

- *Recopilación y documentación de otros recursos documentales (fotos, archivos, carteles..): 2.390 €*

Se recopilarán en el registro de Xenpelar Dokumentazio Zentroa otra serie de recursos, como fotos, carteles u otros archivos de los eventos. Se realizará inventario de tal recopilación.

- *Preparación de la colección anual para la investigación: 4.200 €*

Xenpelar Dokumentazio Zentroa realizará una colección anual con los datos recopilados en Navarra (relación de eventos documentados, relación de grabaciones realizadas, transcripciones y otros recursos documentales).

2.2. Elaboración y redacción del informe de investigación: 4.000 €

Nafarroako Bertsozaleen Elkartea realizará un trabajo de investigación que tendrá por objeto la investigación de un tema concreto del bertsolarismo en Navarra. Esta cantidad se reserva para la contratación de la persona investigadora: elaboración de datos cuantitativos y cualitativos en base al fondo documental recopilado, trabajo de campo, redacción del informe final etc.

## G ) JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea:
Hitzarmen hau sinatzen den unean jarraipen batzorde bat eratuko da. Batzorde horretako kide izanen dira Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren ordezkariak eta Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen ordezkariak.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren izenean:

- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria, edo ordezko izateko berak izendatzen duena. Batzordeko idazkaria izanen da.
- Euskara Sustatzeko Atalburua, edo berak eskuordetzen duena.
- Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko teknikari bat.

Nafarroako Bertsozaleen Elkartearen izenean:

- Ander Perez Argote elkarteko koordinatzailea edo berak izendaturiko ordezkaria. Batzordekidea izanen da.
- Alaitz Rekondo Ferrero elkarteko lehendakaria edo berak izendaturiko ordezkaria.

Jarraipen Batzordea gutxienez urtean 2 aldiz bilduko da, lehenbizikoa, hitzarmen hau sinatzen denean; bertan, Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak urteko lan programa aurkeztuko du, Hitzarmen honen F idatz-zatian zehaztutakoaren arabera. Azken bilkura urte bukaeran eginen da, eta bertan urteko memoria aurkeztuko du Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak, onetsia izan dadin.

Jarraipen batzordearen bilkurak hitzarmena sinatu duten erakundeen zeinahi egoitzatan egiten ahalko dira.

## H) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Dirulaguntza epe bakarrean ordainduko da 40.000 € bitarteko gastuak ordaindu direla justifikatu ondotik. Emandako dirulaguntza justifikatutako kopuruetara egokituko da, emandako urteko dirulaguntzaren erabateko zenbatekoa gainditu gabe.

## I) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATU

Emanen den dirulaguntza Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

## G) COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

Comisión de Seguimiento:
En el momento de la firma de este Convenio se formará una Comisión de Seguimiento que estará formada por representantes de Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera y representantes de la asociación Nafarroako Bertsozaleen Elkartea.

Por parte de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera:

- La Directora del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera, o persona en quien delegue, que actuará como Secretario de la Comisión.
- La Jefa de Sección de Promoción del Euskera o persona en quien delegue.
- Personal técnico del Servicio de Planificación y Promoción del Euskera.

Por parte de Nafarroako Bertsozaleen Elkartea:

- Ander Perez Argote coordinador de la asociación o un representante designado por el mismo.
- Alaitz Rekondo Ferrero presidenta o un/a representante designado/a por ella misma.

La Comisión de Seguimiento se reunirá al menos 2 veces al año, una primera, a la firma del presente Convenio, donde Nafarroako Bertsozaleen Elkartea presentará su Programa Anual de Trabajo a realizar, según lo que se especifica en el apartado F de este Convenio, y la última reunión se celebrará al final de año, donde se presentará la Memoria Anual para su aprobación.

Las reuniones de la Comisión de Seguimiento podrán celebrarse en cualquiera de las sedes de los organismos firmantes del Convenio.

## H) ABONO DE LA SUBVENCIÓN

El abono de la subvención se realizará en un único plazo antes del 31 de diciembre de 2022, tras la justificación del pago de los gastos realizados hasta 40.000 €. El importe a abonar dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada sin que pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

## I) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuan aurkeztuko da 2022. urteko azaroaren 15a baino lehen, behar diren bide administratiboak erabiliz, Nafarroako Bertsozaleen Elkarteari dagokion ordainketa egin ahal izateko.

b) Langile gastuak justifikatzeko Nafarroako Bertsozaleen Elkarteko langileek egitasmoari emandako orduak zerrendatuko dira eta horrekin batera nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZ atxikipenak aurkeztuko dira.

c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horiekin batera fakturak eta beharrezko jotzen diren frogagiriak, bai eta ordainketa agiria ere, atxikiko dira.

Faktura eta gainerako agiriak modu korrelatiboan zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZ edo bestelako zergak barne hartzen dutelarik. Jarduera zergen ordainketatik salbuetsirik egonen balitz, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren eta dirulaguntza kobratu ahal izateko, Nafarroako Bertsozaleen Elkarteak, 2022ko azaroaren 11n, egitasmoaren oroitidazkia aurkeztuko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari, ezarritako helburuak bete direla ikusteko.

Baldin gastuen azkeneko justifikazioa ez bada onartutako aurrekontuaren guztirako zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ez da ulertuko onuradunak ez duela bete dirulaguntza justifikatzearen betebeharra. Dirulaguntzak ematen dituen organoak erabakiko du, nolanahi ere, ea gastuen justifikazioa bateragarria den deialdiaren xedea benetan gauzatzearekin.

Deialdi honen baitan diruz laguntzen den helburua bete dela ulertzeko, egiaztatu egin behar da ezen proposatutako jarduera bere osotasunean gauzatu dela; horrela izan ezean, jasoko den zenbatekoa gutxitu eginen da, gauzatze mailarekiko modu proportzionalean gutxitu ere.

a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, por las oportunas vías administrativas, para el 15 de noviembre 2022, para proceder al abono respectivo.

b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de Nafarroako Bertsozaleen Elkartea, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.

c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.

Las fotocopias de las facturas y demás documentos justificativos de gasto se deberán numerar de forma correlativa y presentarse en el mismo orden que el que figura en la relación de gastos contemplando, en su caso, IVA o cualquier otro impuesto. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, y con el fin de proceder al cobro de la subvención, Nafarroako Bertsozaleen Elkartea presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, para el 11 de noviembre de 2022, una Memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, pero a pesar de ello se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, no se considerará que el beneficiario incumple con la obligación de justificación de la subvención; el órgano concedente valorará, en todo caso, si la justificación de los gastos es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Se entenderá que el objeto de subvención de la convocatoria está cumplido cuando se haya acreditado, la ejecución de la totalidad de la actividad propuesta; en caso contrario, la cantidad a percibir se aminorará proporcionalmente a dicha ejecución.

## J) GARDENTASUNERAKO BETEBE-HARRA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro. Horretarako, 1.2 eranskineko 4. eredua bete beharko dute, gardentasun betebeharrari buruzko adierazpena, alegia.

Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzen ote diren jakiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

a) Aurreko urteko negozio-zifra.

b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.

b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.

c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.

d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.

e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko

## J) OBLIGACIONES DE TRANSPARENCIA

Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros, para lo cual deberán cumplimentar el modelo 4: Declaración sobre la obligación de Transparencia que figura en el Anexo 1.2.

A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

a) La cifra de negocio del año anterior.

b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión la información que se relaciona a continuación:

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.

b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.

c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.

d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.

e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bide telematikoak erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du.

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**K) DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ZEHAPEN PROZEDURA**

Jarraipenari, itzulketari eta zehapen prozedurari dagokionez, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoaren arabera jokatuko da, eta zehazki ondokoan ezarritakoaren arabera:

- II. titulua, dirulaguntzak itzultzea, I. kapitulua, itzulketaren gainean, 34., 35., 36. eta 37. artikuluak.

- III. titulua, diru-laguntzen jarraipena, I. kapitulua, organo kudeatzaileek egin beharreko jarraipenaren gainean, 38. eta 39. artikuluak. II. kapitulua, finantza kontrolaren gainean, 40. eta 41. artikuluak.
- IV. titulua, arau-hausteak eta zehapenak, I. kapitulua, arau hausteen gainean, 42. artikulua. kapitulua, zehapen araubidearen gainean, 43., 44., 45., eta 46. artikuluak .

**L) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA.**

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari dirulaguntzaren onespenaren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuaren parte-hartzea Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez. Aipamen hau Nafarroako Gobernuko sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat eginen da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

La información señalada se presentará firmada por el o la representante legal de la entidad beneficiaria de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y se dirigirá a la unidad administrativa que gestiona la subvención.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos deberá presentar una declaración en tal sentido.

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

**K) REINTEGRO DE LAS SUBVEN-CIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIO-NADOR**

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.

- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

**L) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION.**

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

**M) DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA.**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izanen.

**M) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.**

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA
CONSEJERA DE RELACIONES CIUDADANAS

Ana Ollo Hualde

NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEAREN IZENEAN
EN REPRESENTACIÓN DE NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA

Ander Perez Argote

## EUSKARABIDEAREN ETA NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA (2022)

| NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA 2022 AURREKONTUA | |
|---|---|
| **1. PERTSONAL GASTUAK** | |
| **Ikerketa arduradunaren dedikazioaren % 25** | **7.800 €** |
| Ikerketa lana koordinatzea | 3.000 € |
| Biografia atala eguneratzea | 4.800 € |
| **Administrazio arduradunaren dedikazioaren % 25** | **7.200 €** |
| Bertso ekitaldien informazioa koordinatzea | 3.700 € |
| Ekitaldien grabazioak koordinatzea | 3.500 € |
| **2. IKERKETA LANERAKO GASTUAK** | |
| **Ikerketarako dokumentazio bilketa: Xenpelar Dokumentazio Zentroa** | **21.000 €** |
| Bdb.bertsozale.eus dokumentazio sistema garatzea (ikerketa atariaren prestaketak, mantentzea eta garatze-lanak) | 4.800 € |
| Ikerketarako agenda zabaltzea | 1.590 € |
| Bilketa eta dokumentazio irizpideen formazioa eta zuzenketa | 3.220 € |
| Bertsoen transkripzioa eta zuzenketa | 4.800 € |
| Bestelako dokumentazio bilketa eta antolaketa (argazki, atxibo, kartel...) | 2.390 € |
| Ikerketarako urteko bilduma prestatzea | 4.200 € |
| **Ikerketa txostena prestatzea eta idaztea** | **4.000 €** |
| **GUZTIRA** | **40.000 €** |

## CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA Y NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA (2022)

| PRESUPUESTO DE NAFARROAKO BERTSOZALEEN ELKARTEA 2022 | |
|---|---|
| **1. GASTOS DE PERSONAL** | |
| **25% de la dedicación del responsable de investigación** | **7.800 €** |
| Coordinación del trabajo de investigación | 3.000 € |
| Actualización sección biografías | 4.800 € |
| **25% de la dedicación de la responsable de administración** | **7.200 €** |
| Coordinación de la información de eventos de bertsolarismo | 3.700 € |
| Coordinación de la grabación de eventos | 3.500 € |
| **2. GASTOS DE LA LABOR DE INVESTIGACIÓN** | |
| **Recopilación documental para la investigación: Xenpelar Dokumentazio Zentroa** | **21.000 €** |
| Desarrollo e implementación del sistema documental bdb.bertsozale.eus (preparación del portal de investigación, mantenimiento y desarrollo) | 4.800 € |
| Difusión de la agenda para la investigación | 1.590 € |
| Trabajos de formación y corrección de criterios documentación | 3.220 € |
| Transcripción y corrección de bertsos | 4.800 € |
| Recopilación y documentación otros recursos documentales (fotos, archivos, carteles...) | 2.390 € |
| Preparación colección anual para la investigación | 4.200 € |
| **Elaboración y redacción del informe de investigación** | **4.000 €** |
| **TOTAL** | **40.000 €** |

**II. Eranskina**

**GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA**

.................................................................................................................................................jaunak/andreak,

........................................ IFZ duen ..........................................................................................

............................................................................... entitatearen legezko ordezkari naizen aldetik,

**ADIERAZTEN DUT,** nire erantzukizunpean eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legean xedatutakoa betez:
(X batez adierazi bidezko dena)

- ◯ Entitateak gardentasun betebeharra duela, eta horregatik informazio hau aurkezten duela:
  - ◯ Entitateko gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.
  - ◯ Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.
  - ◯ Gobernu, administrazio eta kudeaketa eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.
  - ◯ Entitateak kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu.
  - ◯ Urteko azken kontuen kopia.
- ◯ Entitateak gardentasun betebeharrak bete behar dituela eta aurkeztuak dituela beharrezko ziurtagiriak, aurreko dirulaguntza hau eman zitzaionean aurkeztu ere: ........................................................................................................................ (*adierazi zein zen emandako dirulaguntza eta zein organok eman zuen*). Hortaz, ez da beharrezkoa berriz aurkeztea, orduan emandako datuak ez baitira aldatu.
- ◯ Entitateak ez duela bete behar gardentasun betebeharra, honako gorabehera hauetako bakar bat ere ez delako gertatzen:
  - ◯ Urte batean jasotako laguntzak edo dirulaguntzak 20.000 eurotik gorakoak izatea.
  - ◯ Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa entitatearen urteko diru-sarreren %20 baino handiagoa izatea, gutxienez 5.000 euro egiten badu.

Iruñean, 20......(e)ko ............aren ............(e)an

SINADURA:

## GARDENTASUN BETEBEHARRARI BURUZKO ADIERAZPENA

**Dirulaguntza:**

...........................................................................................................................

**Entitate onuraduna:**

................................................................................................ IFK: ...........................

Osatu taula informazio honekin (5/2018 Foru Legearen 12. artikulua):

a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.
b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda. Kargudun bakoitzaren dedikazio araubidea.
c) Entitateak kargudun bakoitzarengatik jasotako ordainsari gordinak eta gainerako konpentsazio ekonomikoak, kontzeptuen arabera banakatua, eta urteko kontuak, hauek jendaurrean erakutsi ahal izateko.

| Organoa | Kargua | Ordainsaria (eurotan) | Ordainsariaren kontzeptua | Dedikazio araubidea |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

....................................... (e)n, 20.....(e)ko ..........................aren ...........(e)an

Izen deiturak: ....................................................................... NANa: ..............................

Kargua: ..........................................................................

## Anexo II

### DECLARACIÓN SOBRE LA OBLIGACIÓN DE TRANSPARENCIA

D./Dña. ......................................................................................................................................................,

representante legal de la Entidad .....................................................................................................................,

con N.I.F. ........................................

**DECLARO** bajo mi responsabilidad y atendiendo a lo estipulado en la ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, que
(marcar con una X lo que corresponda)

- ○ La entidad está sujeta a la obligación de transparencia, por lo que presenta la siguiente información:
  - ○ Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.
  - ○ Relación de los cargos que integran dichos órganos.
  - ○ Régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y gestión.
  - ○ Retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas por la entidad por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos.
  - ○ Copia de las últimas cuentas anuales.
- ○ La entidad está sujeta a la obligación de transparencia y ha presentado la información justificativa con ocasión de la concesión de una subvención anterior ............................... (*referencia a la subvención concedida y al órgano concedente*) ............................................................................ por lo que no es preciso reiterarla dado que no han cambiado los datos ya facilitados.
- ○ La entidad no se encuentra sujeta a la obligación de transparencia ya que no se dan ninguna de las siguientes circunstancias:
  - ○ Que el importe de las ayudas o subvenciones percibidas, durante el periodo de un año superen los 20.000 euros.
  - ○ Que el importe percibido represente al menos el 20 % del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen la cantidad de 5.000 euros.

Pamplona, a ........ de ................................ de 20......

FIRMA:

**Gobierno de Navarra**
Departamento de Relaciones Ciudadanas

**Nafarroako Gobernua**
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

nafarroako **bertsozale** elkartea

DECLARACIÓN SOBRE LA OBLIGACIÓN DE TRANSPARENCIA

**Subvención:**
..........................................................................................................................................
**Entidad beneficiaria:**
........................................................................................ NIF: ..................................

Completar la tabla con la siguiente información (artículo 12 de La Ley Foral 5/2018):

a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.
b) Relación de los cargos que integran dichos órganos. Régimen de dedicación de cada uno de sus cargos.
c) Retribuciones brutas y demás compensaciones económicas, percibidas por la entidad por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos, y sus cuentas anuales, para que estas puedan hacerse públicas.

| Órgano | Cargo | Retribución (euros) | Concepto de la retribución | Régimen de dedicación |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

En ............................................., a .......... de ............................ de .............
Nombre y Apellidos: ...................................................................... DNI .........................
Cargo: .........................................................................

(e)n, 20.....(e)ko .........................aren ..........(e)an

Izen deiturak: ........................................................................ NANa: .........